

Jon Maia 'Riomundo' eleberriaz mintzatuko da bihar Leioan

Jon Maia bertsolari gipuzkoar ezaguna hartuko du bihar, asteartea, Leioako liburutegiaren literatur tertuliak. Zumaian bizi den Urretxuko semeak 'Riomundo' bere lehenengo liburuaren inguruan arituko da solasean, espainolez. Izan ere, Maiak 2005ean euskaraz idatzitako eleberriaren espainierazko bertsioa aukeratu dute hileroko literaturzaleen topaketarako. Maiaren familiaren Euskal Herriratzea oinarri duela, liburuak Pedro Sierra komunista egoskorra eta bere sendia Albacetetik erbestera, Euskal Herrira, bultzako dituzten gerra, frankismo eta gosea ditu kontakizun lehenengo zatian. Bigarrenean, ordea, Pedoren semeak, oraingoan Euskal Herriaren askapenaren aldeko borrokaren ondorioz, egin beharreko erbesteratzearekin bukatuko da. Ohi bezala, solasaldi bi izango dira 17:30ean eta 19:15ean, biak Kultur Leioako prentsa aretoan, laugarren solairuan. Liburutegiko kideek jende orori zabaldu diote hurreratzeko gonbitea, ohiko parte hartzailea izan ala ez, liburua jadanik irakurrita dutenak zein egilearen ahotik ezagutu nahi dutenak ere.